

DIRU-SARRERAK:

Gobernuko beka, subentzioak eta laguntzak erabiliko ditugu enpresa txiki berrientzako. Horretarako egunero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria irakurriko dugu. Gobernuak ez du “doako dirurik” eskaintzen, baina orientazioa, laguntza eta finantzaketa-programak eskaintzen ditu. Bertaratuko gara nola hasi eta hazten lagun diezaguten.

Ez dugu nahi gure bezeroek izugarrizko diru kantitatea ordaindu behar izatea; izan ere, denek eskuragarri edukitzea nahi dugu, hau da, denen poltsikuetara moldatzea. Gure helburua ez da diru asko irabaztea, baizik eta gizarte inklusibo bat bultzatzea gaztetatik hasita. Hala ere, ikasketa metodoak, kursiloak etab. eskuratzen ditugunez, hilabetero familiek eta ikastetxeek diru kopuru bat emango digute: familiek 65€ eta ikastetxeek 400€. Izan ere, ikastetxeentzako diru kopuru hau ez da gauza asko guk eskeintzen dizkiegun berrikuntzetarako.